

ALDAKETAK DEIALDIAREN AURRE-ARGITALPENEAN

Deialdiaren aurre-argitalpenari dagokion testuan bi aldaketa egin dira, 2.2 eta 3.3 oinarriari eragiten dietenak, jarraian argitzen den bezala:

- **2.2 Oinarria.** Honela idatzita geratzen da (egindako aldaketak horiz azpimarratuta):

2. OINARRIA. IKERTALDEEN EZAUGARRIAK

(...)

2.2. Dirulaguntza eskatzeko, ikertaldeek kide hauek izan beharko dituzte:

- a. UPV/EHUrekin lotura iraunkorra duten lan kontratudunak edo funtzionarioak.
- b. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 23. artikuluko modalitatean kontratatutako ikertzaileak (itzal handiko ikertzaileen kontratua); Ramon y Cajal programako UPV/EHUko kontratupeko ikertzaileak; Ikerbasque programako ikertzaileak; UPV/EHU-CSIC zentro mistoetako doktore atxikiak; irakasle atxikiak; irakasle laguntzaile doktoreak; atxikiak izan diren bitarteko lan kontratudunak; **unibertsitate ospitaleetako irakasguneetako irakasle elkartu/bitarteko lan kontratudun/ordezko doktoreak.**
- c. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen kontratuetan jasotako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUri lotutako ikertzaile ez-iraunkorrek: 21. artikulua (doktorego aurreko kontratuak) eta 22. artikulua (Espainiako Zientzia eta Teknologia Sistematan sartzeko kontratua).
Doktorego aurreko prestakuntza bidean dauden ikertzaileen kasuan, doktorego tesiaren zuzendariak agertu beharko du eskaeran.
- d. Lanaldi osoko bitarteko lan kontratudunak eta irakasle elkartu doktoreak, b. puntuari sartzeko ez direnak kasu bietan; **unibertsitate ospitaleetako irakasguneetako irakasle elkartu/bitarteko lan kontratudun/ordezko doktoreak;** ikerketan laguntzeko akademikoak, aintzat harturik unibertsitate arautegian ezarritako prozedurak; eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 23 bis artikuluko modalitatean kontratatutako kideak. Atal honetan aipatutako kolektiboak ez dira zenbatuko gutxieneko taldearen osaera zehaztean, eta ez dira kontuan hartuko adjudikatutako kopurua kalkulatzeko, finantzaketa lortuz gero.

- **3.3. OINARRIA - GUTXIENEO BALDINTZAK.** Honako paragrafo hauek gehitu dira a) eta c) ataletan:

- a) **Argitalpen zientifiko bat doktore bakoitzeko.**

(...)

Taldearen koherentzia eta ibilbide komuna frogatzeko, taldeko bi kidek batera egin duten argitalpen zientifiko bat aurkeztu beharko da, halakotzat hartuko direlarik artikulua, liburuak edo liburu-kapituluak. Liburuetan kideetako bat editore gisa ageri bada eta beste kide batek kapitulu batean parte hartzen badu, baterako argitalpentzat hartuko dira

Eskatzaileek "Ikerketa-taldeak" aplikazioan adierazi beharko dute zer argitalpen hartu behar den kontuan atal honetan eskatzen den gutxieneko baldintza egiaztatzeko.

- b) ...

- c) **Aktibo dagoen ikerketa proiektu bat, UPV/EHU haren zuzeneko onuraduna izanik.**

(...)

Taldearen koherentzia eta ibilbide komuna frogatzeko, 2020–2025 aldian indarrean dagoen ikerketa proiektu lehiakor bat aurkeztu beharko da, gutxienez talde eskatzaileko bi kideren parte hartzea duena.

Eskatzaileek "Ikerketa-taldeak" aplikazioan adierazi beharko dute zer proiektu hartu behar den kontuan atal honetan eskatzen den gutxienerako baldintza egiaztatzeko.